

1 Negarra

Begietatik tan-tan malkoak dariozanean bakarrik negar egiten ete-dau gizonak? Ez; negarra biotzean sortzen da; negar iturri biotza da ta begiak iturri edo biotz-ujelen ur-erreten dira; askotan baña eul-urak soloak berak eraten dauz, ibaira juateka. Euri bateregia danean eta lufrak danak batera edan ezin daikezanean duaz ujelok ibaira. Olantxe malkuak be, gizonaren begietara. Noz-nai ta edozergaitik malkuak dariozan gizonak buru ariña darakusgu, Malko batzuk geratzeko-edu mamin ez ...!

2 Jo ta ausi.....

Jo ta ausi, eten edo iñausi... au al-da arenok, bidekatuak bideratzeko bidea? Euren ustez illunpetan barik argitan ta zuzen duaz. Orra egia. Bai; argitan ez duazanik, be, ezin ukatu; ez ^{da} nonorantz duazenik be. Egi izpirik bat ez daben guzurrik ez da eta okerretik duazanok egi-izpioi dakuse. Egi-izpiaren inguruan dabillen guzurrik ez; zer dala-ta ez? Guzurra utsa da ta utsik ezin ikusi. Egi-izpioi elburu etsi ta egi-izpirako duazan bidea besterik ez da. Egi-izpioi benetako elburua ez dala erakutsi egiozue eta okerretik dabilzanak eurok euron begiz ikusiko dabe. Baña eurok egiten dituen astakeri ta egiñenak txarto dagozanik esatea ez da naiko. Euron elburua lortzeko bide dira ta egokiak. "A fine pendet natura et e natura repetuntur media". Langilleak euren eskubideak euren esku-mende euki gura izatea ondo da. Euroi yagokoezanen jaube izateko beste biderik ez ba-dakuse....zer?

Korapilloa askatzeko eurok elburutzat dauken argi-izpioi egizko elburua ez dala, asaldu egiozue ba.

Eta argi-izpioi egizko argia ez dala zelan adierazi? Beste argi-biziago baten bidez bakarrik. Argi biziagoaren ~~dir~~dirak argi-izpitxuoitza-
li ez arren, ipurtargi biurtuko dabe. Eta gizonak ~~gizonak~~ argi bizitan ibili naiago izango dabe.

"Una doctrina no se destruye por la fuerza sino por otra doctrina.

3. Iñartzi zikztrin mizkiña

3. Iñartzi ziztrin mizkiña

Pago adaburutzua zeñen edarra! Zenbat eta adaburutzuagoa ta indar geiago pagoak!

Adaburu guztiak moztu ta bat bakarra laga ezkerro bakar orrek geiago irabasten dauela ta len adar danak artzen ebazan indarrak orain bakar orrentzat izango dirala uste dozu, lugin arazuetan atzera txamar zarean orrek? Besterik uste dabe gure baserritarrak.

Indertu egin daroa pago-ondoa adaburuak iñausteak eta adaburu larregi iñausteak igartu be, bai

Pago-adarrok batak besteari ezin ikusita baserritarrai adar batek bare ondokoak iñausteko ba-lirauskio, zer esango zeunke? Ai, errukarria!! Bestien edarra ta indarrak bere burua gura edu azaltzen ez dautsola izter uste dau... bestien edarrik ezin ikusi dau eta bestien indar eta edarro berebtzat be, on danik ez daki! ...Adaburu arro!! Eure buruaren alde a-billalakuan, eure ondamendirantz uake baña.

Bakarrik ba'intz orain edu zorna ez euke izango. Bestien edarra ez dok ire galgarri ta ago ixilik. Exilik ez bakarrik, eure lagunekin adizkide ta eure lagunen edarra gaitik ondoari eskerrak emon eikioz.

Adaburuaren batek besterik uste izango baleu be, baña, baserritar jatorrak aren esanei ez leukioz jaramonik egingo ta iñartziz erreten bizi izan bearko leuke adaburu zitallak, bere erruz baña.

Jañkuak be, badaki gure baserritarrak-edu eta guri ondokuen oneko edo alako kerizeak onik ez dagiskula deritxogun arren eta a gure ondamenti ostea dogunarren, Jañkoak ez dau iñausten

Arria arriagaz apurtu daike; ez orraitiko leiar barekaz arri gogorrik, Kistoren arerioak indarrez azpiratu gura al dozu? Baietz deritxazu.? Kistok bere irakatsiak indarraren buruz barik maitasunez ez al euzen zaba baldu? Ludi guztia aldenik-al den erre eban Kistoren biotzetik urten eban maitasun garrak.

Malluagaz zatitu ta birrindu, daikezu arria be, baña mallakada barik birrindu ta, auts zuri biurtzen dau su-goriak.

Baña maitasunak ba dau beste egokitasun bat, be. Bero dagon burdineari berez dario berotasuna ta ikuturik egiteke galditzen dauz inguruak. Maitasunez beratu beratuta dagoanari, be, gañezka dario ondokuan beratu daikekezan maite-garra; maite garra orreik berialaxe kiskaltzen dauz guztiak. Indarrak ostera joten dauna bakarrik. Maitasun garrak ez dau mugarik.

6.- Malkoz

10 Irailla

Itun-bera nozu, lagun. jatorriz itunbera. ~~Ene~~ barruko larriak illerrira narua. Niri geroko bariak jakin naiak eta inguruon gabilkadaren arazi-eale zinkalariei izari araxe nua.

Ilobiak.... bedar. Ene artean itak jandako zurezko gurutzatua. Nire baina ene ilobi gainean bedar gurutz eta gurutz bizi gura neukes. Ene ilobiak, lur legorretan bedar ta landara gurutz asi dedizan bizi nezan artean malkoz burti ta beratu dagidan ilobi tokioi.

Malkoz lurrik beratu ee bu-dagit nire oroizai izango dan zugateak ee da aziko. Malkoz berateke azi dan oroizai-zugate laster izartuko da.